

## “EUSKAL HEZKUNTZAREN ERALDAPETARAKO OINARRIEN TXOSTENAREN ZIRRIBORROA” DOKUMENTUAREN BALORAZIO KRITIKOA

Dokumentu honek jasotzen du otsailaren 2an EHIGEk jaso genuen “Euskal hezkuntzaren eraldaketarako oinarrien txostenaren zirriborroa” dokumentuaren balorazio kritikoa.

Argitu nahi dugu ez direla, inola ere, dokumentu horri egindako ekarpenak; izan ere, zirriborro honek ez du jasotzen EHIGEk Legebiltzarreko ponentzian planteatutakoa.

Berriro ere prozesu parte-hartzaile baten emaitza moduan aurkezten zaigun dokumentu baten aurrean gaude, errerealitatean, itun politiko baten abala duen dokumentu bat dena, eztabaida soziala saihestuz.

Bestalde, dokumentu hori ez da programatikoa, eta ez du zehaztasunik bere helburutik harago: eredu duala legitimatzea eta iraunaztea, eta irakaskuntza pribatuaren finantza-erreskatea ziurtatzea, demografia-jaitsieraren ondorioen aurrean.

### TESTUINGURUA

Euskal hezkuntza-sistemaren etorkizuna zehazteko Legebiltzarreko ponentziak eskatuta, 2021eko abenduaren 15ean EHIGEk lehendakariak eta koordinatzaileak “Euskal hezkuntza-sistemaren erreforma” dokumentua aurkeztu zuten Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean.

Aurkeztu genuen dokumentuak **EHIGEk duela zenbait urte Hezkuntza Sistemaren egiturazko arazoei eta Euskal Eskola Publikoaren garapenari buruz Itunaren eta Hezkuntzaren Legearen eztabaida hasi zenetik egin dituen balorazio eta posizio batzuk** jasotzen ditu.

Hezkuntza Sailak argitaratutako diagnostiko-txosten ugariek, Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostenek, euskal hezkuntza-sistemari buruz egin diren ikerketek eta hezkuntza-politiken jarraipenean zuzenean parte hartzeak sortu dituen proposamen ugariek lagundu digute **euskal hezkuntzaren indarguneak eta ahuleziak ezagutzen, eta gure seme-alaben hezkuntza eta bizi garen gizartea nola hobetu behar den azaltzen.**

### Landu genituen gaiak

- Hezkuntza-gai nuklear batzuei buruzko balorazioak eta proposamenak:

- Estatuko ezegonkortasuna eta mugak
- Eredu duala eta publiko-pribatu finantzazioa
- Euskara Euskal Eskola Publikoan
- Eskolaratzeko eskaintza eta planifikatzeko eredua.
- Publikoaren esangura. Hezkuntza-zerbitzu publikoa.

- 1992ko Hezkuntza Akordioari buruzko gogoeta batzuk.
- Hezkuntza Ituna eta Euskal Hezkuntza Legea.
- Euskal Eskola Publikoa hobetzeko plana.

#### Egindako proposamen batzuk

- Egungo testuinguruaren benetako diagnostikoa eta azterketa egitea: nondik abiatzen garen, nora iritsi nahi dugun eta nola egingo dugun.
  - Euskal hezkuntza-sistema publiko laiko propioa sortzea, hezkuntza publikoa indartzen lagunduko duten lege-esparru egonkorra defendatuz, Europako beste herrialde batzuetan gertatzen den bezala.
- Gizarte- eta hezkuntza-eredu publiko bat, berdintasuna sortzen duen elementu gisa, egungo statu-quo publiko-pribatua aldatuko duena, eta koherentea izango dena hezkuntza-inklusio eraginkorra, hezkuntza-justizia eta gizarte-kohesioa lortzearekin. Horrek esan nahi du eskola publikoa doakoa dela klase sozial guztietako ikasleentzat, eta egungo ia-merkatu ereduarekin amaitzea eskatzen du.
- Egungo itun-politika berehala etetea, euskal hezkuntzaren irakaskuntza-ereduaren erreforman aurrera egiteko. Euskal hezkuntzaren etorkizunari buruzko eztabaida betean gauden honetan, onartezina da euskal hezkuntza-sistema hipotekatzen aritzea, datozen 6 urteetarako ikastetxe pribatuen kontzertazioa blindatz, eta, horrela, gai erabakigarri hori hezkuntza-eztabaidatik ateratzea.
- Ez finantzatzea familia batzuen interesak guztien onuraren helburuen aurretik jartzen dituzten ikastetxe pribatuak. Doakotasuna eskola publikoko ikasle guztientzat eta ikasle kalteberentzat, eskolatuta dauden sarea edozein dela ere.
- Eskola-mailan eta eskolaz kanpo EEPrako euskalduntze-proiektu bat, ikasle guztientzat euskararen ikaskuntzaren bermatzaile izan dadin, murgiltze-eredu malgu baten bidez, ikastetxearen hizkuntza-proiektuak arautua eta hizkuntzak ikasteko esparru integratu baten barruan artikulatua.
- Hizkuntzen ikaskuntza integratua arautuko duen esparru bat adostea, bi hizkuntzak modu eraginkorrean ezagutzea eta atzerriko hizkuntza ondo ezagutzea ahalbidetuko duena.
- Administrazio-mailan desentralizatutako eskola publiko bat eraikitzeko hezkuntza-esparrua, eskolaren eta administrazioen (autonomikoa, lurraldekoa, tokikoa) arteko lankidetzazko kogobernantzan oinarritua eta desregularizatzalea ez den autonomia- eta partaidetza-ereduarekin.
- Eskola publikoaren plan estrategikoa, hezkuntza eta berrikuntza digitalerako eta formatu guztietan doako euskarazko material didaktikoak garatzeko.
- Eskola publikoaren eskaintza berrantolatzeari ekitea, eskolatzearen arloko desentralizazio administratiborako, ikastetxe publikoen arteko lankidetzarako eta auzo, herri edo hiriko hezkuntza-proiektu komunitarioen garapenerako oinarriak jarri.
- Sistema dualak sortutako egungo eskolatze-eredu segregatzailea erreformatzea, ikasle kalteberen kontzentrazioak ezabatzea, matrikulazioa murritzeko erronkei aurre egitea, eta barruti/eremu bakoitzean hezkuntza-

proiektu integral publikoak garatzea. Ido horretan, honako prozesu hauei presaz ekitea:

- Eskola publikoaren eskola-mapa berritzea, sare publikoaren ekitateari eta errendimenduari eragiten dieten gaien plangintza estrategikoari ekiteko.
- Eskola-plaza publikoak betetzeari lehentasuna emango dion eskolatze-eredua, egungo itundutako gaineskaintza sustatzeko politikaren aurrean.
- 0-3 publikoa sustatuko duten eta ikasleek eskola publikoan (ikastetxe integraletan) jarraituko dutela bermatuko duten politika estrategikoak.
- Familien kontsulta- eta partaidetza-eredu desentralizatu bat garatzea (udal-kontseiluak, barruti-kontseiluak, lurralte-plangintzako batzordeak), eskolatze-prozesuak hobetzeko eta hezkuntza-politiken eraginaren jarrapena egiteko.
- Euskal Eskola Publikoa osatzen duten hezkuntza-komunitateen artean lankidetzaren eta proiektuak partekatzearen printzipioa lehenestea, ikastetxeen arteko lehiakortasunaren printzipioaren aurretik, hori baita ia-merkatuaren ereduaren logika.
- Gizerteratzeko eta Gizarte Kohesiorako Euskal Hezkuntza Publikoaren Zerbitzua sortzea, elkarlaneko gobernantza egiten duten titulartasun publikoko zentroek osatua. Erakunde hori titulartasun pribatuko zentroetara irekita egongo da. Horretarako, arau-esparru bat egin beharko da, hezkuntza-proiektu inklusiboak garatzen dituzten edo zerbitzu horretako kide izateko baldintzak beren gain hartu nahi dituzten ikastetxe pribatuuen publifikazioa arautu eta errazteko.
- EEPren kalitatea hobetzeko proiektu bat, honako helburu hauetan:
  - Eskola publikoa euskal hezkuntza-sistemaren sare hegemoniko eta ardatz egituratzaile bihurtzea.
  - EEPren zeregina indartzea, euskal kultura euskalduntzeko eta garatzeko bermatzaile gisa.
  - Eskola publikoari baliabide ekonomikoak, materialak eta antolakuntzakoak ematea, irakatsi eta ikasteko prozesuen kalitatea hobetzeko.
  - Eskola publikoa euskal gizartearen eraldaketaren eta kohesioaren erreferente bihurtzea.
  - Hezkuntzaren desentralizazioa eta hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta informalaren arteko lotura.

## **“EUSKAL HEZKUNTZAREN ERA DALAKETARAKO OINARRIEN TXOSTENAREN ZIRRIBORROA” DOKUMENTUAREN BALORAZIO KRITIKOA**

### **Hezkuntza sistemari zorrotz begiratzea**

“Ohiko inertziak eta konfort-markoak utzi” esaldiaren azpian, dokumentuak adierazten du zorroztasuna egungo eta etorkizuneko erronka jakin batzuei aplikatu behar zaiela. Bost hautatu dituzte:

## Balorazioa

Adierazitako bost erronken idazketa anbiguoa eta ez oso zehatza da. Azter ditzagun batzuk, labur-labur:

- Zer esan nahi du *berrikuntzaren kulturaz jabetzeak?* Zenbait termino erabil zitezkeen, hala nola irakasleak eta ikastetxeak sentsibilizatzea berrikuntzaren kultura sortu edo hobetzeko beharraz. Beraz, idazketak ez du argi markatzen helburua.
- *Hezkuntza-prozesuari aplika dakizkiokenek ekarpen zientifikoak kontuan hartzeak* ere ez du argitzen oso kontuz ibili behar ote den behar bezala egiaztatutako eta ebidentziak dituzten metodologia zientifikoak hautatzeko orduan.
- ***Ikasle ahaldunduaik ikusmiran izatea*** ez da egokiena ikaslea bere ikaskuntzaren subjektu bihurtzea bezalako erronka bat adierazteko. Gainera, irakasleen eta **familien rolaren deskripzio huts bat ematen da, lagunzaile eta gidari soil gisa, eta ez agente hezitzairen/sozializatzairen gisa.**
- *Ikastetxe ahaldunduekin hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eskola-antolaketa eraikitzea* prozesuaren ordena nahastea da. Hezkuntza formala eta ez-formala lotzea posible izango da, ikastetxeek hezkuntza-proiektu integralak eta komunitarioak definitzeko eta garatzeko baliabideak eta prestakuntza emanet. Horrela eginez gero, ikastetxeak ahaldunduta aterako dira, eta ez alderantziz.
- 5 erronketatik azkena da eskola publikoarentzat interesa izan lezakeena; izan ere, haren idazketa da argiena: EHIGERen helburu estrategikoetako bat gobernantza-eredu berri bat ezartzea da, erantzukidea, lankidetzakoa, desentralizatua eta udal, Iurrarde eta autonomia mailan egituratua, eta garrantzi handikoa. Beste kontu bat izango da zenbat denbora beharko den legegintza-egitura guztiak eta administrazio-oztopoak mugitzeko, hori egia izan dadin. Denboraren kudeaketa eraginkorra funtsezkoa da aldaketa-prozesuetan.

## Aniztasuna errespetatzea

*Talde nortasun mestizoak bezalako terminoak edo euskal kulturari arreta berezia eskaintzea jasotzen dira.*

Aurrerago hizkera goratua duten esaldiak erabiltzen dira, hala nola:

*“Ekitatea errazten duen hezkuntza humanistaren alde egiten du euskal hezkuntzak”.*

*“...bizikidetza hobetzeko eta ikasle guztien inklusioa eta arrakasta hobetzeko”.*

## Balorazioa

Hezkuntzatik identitate desberdinak errespetatzea helburu eztabaidezina da, EHIGERen hezkuntza- eta gizarte-ideietan behin eta berriz aipatzen dena, eta urteetan

zehar bete ez dena. Edo aniztasuna guztion ondasuntzat hartzen da edo ez da onartzen, ez dago bitarteko terminorik.

“Euskal kulturari arreta berezia eskaintza” aurreko helburua bezala sartzen da gure hezkuntza-sistemaren berezko izaeraren logikaren barruan, ikastetxe guztiak ez baitiote ekarpen bera egiten (batzuek ezer ere ez), horrek esku-hartzetako politikorik eragin gabe. Aukeratzeko eta irakasteko askatasunaren zakuan dena dago, eta, beraz, euskara eta euskal kultura lehentasuna ez izatea ikastetxe batzuentzat.

“Euskal Hezkuntza Sistemak ekitatea erraztuko duen hezkuntza humanistaren alde egiten du”; berez, eztabaideazintzat jotzen diren esaldietako bat da, baina errealtitateak etengabe ezeztatzen du. Gainera, anbiguotasunera itzultzen gara, besteak beste, honako termino hauen inguruan: “alde egin”edo “erraztu” eta ez , “konpromisoa” edo “bermea”.

*Eskola-antolamendua bizikidetza-espazio eta gizarteratzerako orainaren eta etorkizunaren oinarrizko pieza bihurtzea. Horra hor euskal hezkuntzaren ekintza eraldatzailearen erronka berria, helburu berritzale eta erronka sistemiko eta eraldatzaile gisa planteatzea inkongruentea dirudi hezkuntza-sistemaren egungo errealtitateari begiratzen zaionean. Helburu hori historikoa da, ez berria, eta sistematikoki ez da bete. Sistemak ez ditu aurrekoak bezalako esaldi on-onak behar, konpromiso eta politika koherenteak baizik.*

### Zergatik lege bat?

*Eragile guztiengan engaiamendua bilduz, lortuko da etorkizuneko Euskal Hezkuntza Sistema aurrerakoia, integratzailea, berdintasunezkoa, arrakastatsua eta kalitatezkoa. Erronka berriei aurre egiteko baliabide gisa planteatzen da legea. Gure herriaren idiosinkrasia oinarri, Administrazioaren eta ikastetxeen arteko harremanak birformulatuko ditugu.*

### Balarazioa

Berriz ere “denok batera eta konprometituta” hitzetara jotzen da erantzukizunik ez hartzeko baliabide gisa. Erantzukizun handiagoa behar da gobernatzearena eta une honetan indarrean dauden legeek eta arauak adierazten dutena betetzeko.

**Etorkizuneko legearen izaeraz hitz egitea erronka berriei aurre egiteko tresna gisa, baina txostenetan eta ikerketetan etengabe eta zehatz-mehatz aipatu diren egungo egiturazko arazoak alde batera utzita, eskola publikoaren gaitzespen argia merezi duen jarrera akritikoa da. Ezin dugu hurrengo hamarkadetarako lege konstituziogile eta estrategiko bat defendatu, egungo desberdintasunak zuzentzeko tresna baliagarria ez dena eta baliabideak dituzten familien hezkuntza-eskaerei erantzuteko soilik balio duena, bikaintasunari, hizkuntzen ikaskuntzari eta irakaskuntza-askatasunari dagokienez.**

Euskal Eskola Publikoaren helburuei erantzungo dien legegintza-esparru berri bat eraikitzeko gainditu beharreko lehen maila alderdi politikoek euskal hezkuntza-sistema osatzen duten printzipoak eta arauak betetzeko duten konpromisoa da.

Atalaren azken esaldiak, *gure herriaren idiosinkrasia oinarriari, Administrazioaren eta ikastetxeen arteko harremanak birformulatuko ditu, betiere hezkuntzaren deszentralizazioa, toki-erakundeen protagonismo zabalagoa, familien parte-hartzea eta hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko lankidetza helburu hartuta, etorkizuneko legeak izango duen norabidea eta orientazioa adierazten ditu:*

- Idiosinkrazia= egungo sistema duala sare pribatuaren finantzaketa hobetuz.
- Administrazio-ikastetxe erlazioen berformulazioa= ardura ikastetxeei eskuordetzea (kontratu-programa, zuzendaritza-taldeen lidergoa, etabar).
- Deszentralizazioa: ikastetxe pribatuak abantailarekin hasten dira, ba dutelako. Publikoak zerotik hasten gara, Administrazioaren horizonterik gabe.

### **Baloreak, printzipoak, helburuak**

Dokumenturako gako bakarra da: **hezkuntza-erakundeen autonomia, lidergo pedagogikoaren autonomia** gisa islatzen dena.

### **Balarazioa**

“Elkarbizi” hitzaren magian oinarritzen da testuaren atal oso hau.

Esaldi batzuk:

- Publikoa eta komuna denarekiko kezka: komuna dena ez al da publikoa? Ardura besterik ez edo erantzukizuna?
- *Euskal Hezkuntza Sistemak ikasle guztientzako kalitatezko eta bikaintasunezko hezkuntzaren aldeko apustua egiten du: bi helburu paralelo dira? Zer esanahi du kalitateak?*

Testuan esaten da eraiki nahi den sistemarentzat gakoa bakarra dela: **hezkuntza-erakundeen autonomia**. Horrek berekin dakar hezkuntza-proiektuek eskatzen duten lidergo pedagogikoaren autonomia eta hezkuntza-proiektua kudeatzeko eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartze demokratikoa ahalbidetzeko autonomia.

Autonomiaren gaia lehenesteko hainbesteko interesa badago eta, gainera, sistemarako giltzarri gisa aipatzen bada, irakurketa zabalagoa egin beharko genuke, eta erabaki horrek nori egiten dion mesede ikusi. Horregatik, honako hau pentsatu beharko genuke:

- *Autonomia pedagogikoa*: uler daiteke euskal curriculumak eta sare pribatuaren beste curriculum bereizle batzuk sartzen direla, matrikulazio-prozesuetan familiak erakartzeko abantaila eta hezkuntza-marka izateko. Ez dezagun

ahaztu ia-merkatuko sistema batean gaudela, eta pribatuek ez dutela sistema horretatik irten nahi, eta bikaintasuna saltzen jarraituko dutela.

- *Personalgoaren autonomia:* Estatuko legeen arabera, ikastetxe pribatuek autonomia dute nahi dituzten langileak kontratatzeko, eta publikoek ez dute eskumen hori. **Itunpeko sarearen finantzaketa handitzen bada eta irakaslea diru publikoarekin ordaintzen bada, autonomia-maila ez da berdina izango gai honetan ere.** Hezkuntza ez-formalerako beste kontratazio mota batzuk egingo dituzte ikastetxe pribatuek, publikoan IGEek egiten dituztenak; hori desabantaila eta zama erantsia da publikoarentzat.

Azken batean, **autonomia ez dago garatuta eta ez ditu ikastetxe publikoak aipatzen.**

### Elkarbizitza eta aniztasuna

#### **“Elkarbizi” kontzeptuaren esanahi berriak**

Testuak planteatzen du hezkuntza-eremuan hobetu beharreko alderdiak daudela: ikasle etorkinak, gutxiengo etnikoetakoak, ikasteko zaitasunei lotutako premiak dituztenak, gaitasun handikoak eta generoa edo sexua baztertzeko arriskuan daudenak.

Baina **ikastetxea aukeratzeko eskubidea** errespetatuz.

Testuak dio bizikidetza dela etorkizuneko edozein proiektu jasangarriren ardatza, eta hiru bizikidetza-maila bereizten ditu:

- ✓ *gizarte anitz eta askotariko bateko bizikidetza.*
- ✓ ***hezkuntza-sareen arteko bizikidetza.***
- ✓ *eskolako bizikidetza.*

### Balarazioa

Dokumentuak nahita saihesten du “publikoa” eta “pribatua” kontzeptuen erabilera eta esanahia, eta horien ordez “sareak” kontzeptu generikoa erabiltzen du.

**Gainera, eztabaida publiko-pribatua saihesten du eta eremu atsegin eta positibo batera eramateen du, “bizikidetza” terminoarekin lotuz.**

**Akordioaren funtsezko gaia da hori, eta aditzera ematen du bi sareak maila berean daudela eta elkarrekin biziitzeko erantzukizuna dutela.**

Gero, testuak malabarismoak egiten ditu, sistemaren adierazle positiboak berriro seinalatuz, eta bat-batean (idazketa berriro zehatzugabe eta ilun bihurtzen da) esaldi honen aurrean jartzen gaitu:

*Gai horri ez zaio heldu beharrezko duen ikuspegitik heldu transbertsalez. Arazoa konplexua da, eskolak soilik gainditu ezin dezakeena, baina badira hobetu beharreko alderdiak: ikasle etorkinak, gutxiengo etnikoetakoak, ikasteko zailtasunei lotutako premiak dituztenak, gaitasun handikoak eta generoa edo sexu bazterkeri arriskuan bizi direnak.*

Testuak modu ez oso zehatzean jorratzen du ikasleen aniztasunaren gaia; izan ere, testu osoan ez dira HPBak dituzten ikasleak aipatzen, eta sistemak hobetu beharko lituzkeen alderdi batzuk aipatzen ditu. Hala ere, ondoren, testua berriro ere anbiguoada, eta ez du ez estrategiarik ez erantzukizunik zehazten hobekuntza horiei ekiteko.

Horrelako terminoak:

- ✓ Esku-hartze komunitarioa.
- ✓ Arlo (¿) bakoitzeko ikastetxeen eta administrazioen arteko elkarlana
- ✓ Erakunde bakoitzaren eskumenen errespetuan.
- ✓ **Ikastetxea aukeratzeko askatasuna errespetatuz.**
- ✓ Desorekak gainditzeko neurri eraginkorrik adostuz eta berdintasun baldintzetan eskolatzeko aukera bermatuz.

**...erantzukizuna komunitate-eremuak kokatzen dute eta erantzukizun politikotik urruntzen dute.**

### **Eskolaratzeko-ereduaren erreforma**

Dokumentuak hainbat neurri proposatzen ditu eskolatze-eredua eraldatzeko eta ikasle kalteberen kontzentrazioak saihesteko:

Erabilitako terminologiak, berriz ere, arazoa eremu komunitarioan kokatzen du, **barruti/eremu bakoitzeko hezkuntza-proiektu integralaren kontzeptuaren bidez**, eta hiru ekintza konbinaturen gainean oinarritzen da:

- a) *Eskola-mapa egokitzea, ekitateari eta errendimenduari erreparatuz.*
- b) *Familien konsulta- eta partaidetza-ereduen eraginkortasuna.*
- c) *Ikastetxeetako ikasleen arteko desberdintasunak gainditzea, hezkuntza-kalitatea hobetzeko.*

### **Balarazioa**

Ulertu behar dugu lehen aipatutako sareen arteko bizikidetzak esan nahi duela eremu bakoitzean ikastetxeek, beren titulartasuna edozein izanda, koordinatuta lan egiteko erantzukizuna hartu behar dutela beren gain, hezkuntza-proiektu komun bat egiteko eta adierazitako gai garrantzitsuak adosteko.

Proposamenaren asmo onak ez ditu arriskuak eta/edo desadostasunak salbuesten. Hona hemen horietako batzuk:

- ✓ Erantzukizunak eskuordetzea: gaur egun ez da tokiko hezkuntza-kontseilu baten eskumena eskola-maparen plangintza edo eskolatzeari buruzko araudি

berri baten definizioa bezalako gai teknikoei ekitea. Ez dira nahastu behar parte hartzeko eta konsultarako organo bat eta Hezkuntza Sailaren eskumenak eta erantzukizuna.

- ✓ Eskumen zentralizatuekin jarraitzea: hezkuntzaren arloko eskumenak udaletara deszentralizatzearrekin batera bultzatu behar dira tokiko hezkuntza-kontseiluak. Administrazioa deszentralizatzeko prozesu horrek zentzia emango lioke kontseiluan egin litekeen lanari.

### Euskal Hezkuntza Zerbitzua

Testuak planteatzen du hezkuntza-sistemak bere gain hartzen dituen erantzukizunen aranean Euskal Hezkuntza Zerbitzua eratzea dagoela, eta hori beharrezko egokitzapena dela.

*Euskal Hezkuntza Zerbitzua osatuko dute Legean ezarritako printzipioak eta helburuak betetzen dituzten ikastetxeak, legeak ezartzen dizkien konpromisoak eta betebeharraak beren gain hartzen dituztenak. Zerbitzu publikoa ematen duten eragileen izaera juridikoa administrazioaren zein beste eragile batzuen ardurapean egon, ezartzen diren baldintzak betetzean dago gakoa.*

### Balarazioa

Parrafo honek argi uzten du:

- ✓ Zerbitzua izendatzeko aukeratu den izenak argi uzten du izaera publiko-pribatua duela eta ikastetxe publikoek zein pribatuek zerbitzu horretako kide izateko eskubide bera dutela.
- ✓ Hezkuntza-zerbitzu gaituak eskaintzeko, ikastetxe publikoak zein pribatuak daude, eta horrek estatus bera ematen die zerbitzukoak izatea erabakitzenten duten ikastetxeeei.
- ✓ Ez da berritasun handia gaur egungo hezkuntza-zerbitzuari dagokionez, indarrean dagoen legeriak izaera hori ematen baitie ikastetxe pribatuei.

Paragrafoak duen garrantzirik handiena **esaten ez duena** da, hau da:

- ✓ Ez da inolako baldintza edo eskakizun zehatzik aipatzen kide izateko, eta, beraz, ezinezkoa da jarrera bat izatea zerbitzuaren interesari buruz. Ez dira bustitzen eta dena irekita dago.
- ✓ Zentro pribatu batzuei ez zaie interesatzen Euskal Zerbitzu honetakoak izatea, eskatzen zaizkien baldintzen arabera. Interesik ez duten ikastetxe pribatuek diru-laguntzarik jasoko al dute?
- ✓ Zentro publiko batzuei ez zaie interesatzen zerbitzu honetako kide izatea, baldin eta ikastetxe pribatuei eskatzen zaizkien baldintzak “maila baxuko” baldintzak badira, ikastetxe pribatu bakar bat ere kanpoan gera ez dadin. Sareen arteko egungo desorekak zuzentzeko bermerik eskaintzen ez duen zerbitzu bateko kide izatera behartuko al dira ikastetxe publikoak?

✓

## Eskola Publikoaren funtsezko rola

Bada beste esaldi bat behartuta sartua dirudien eta, berez, Hezkuntzako Euskal Zerbitzuaren helburuekin kontraesanean dagoena: *eskola publikoak funtsezko eginkizuna du hezkuntzaren zerbitzu publikoa ematen duten eragileen artean.*

### **Balorazioa**

Dokumentuak “funtsezko” hitzari ematen dion esanahia ez da zehazten, eta, beraz, eskola publikoarentzat esaldi zehatzugabea da. **Eskola publikoak asetu arte adierazi du bere helburua hezkuntza-sistemaren ardatz egituratzalea izatea dela, eta ez funtsezkoa.**

Testuak azpimarratzen du gakoa ezartzen diren baldintzak betetzean datzala, baina bat bera ere adierazi gabe. Ondoren, adierazten du familien aukeratzeko eskubideak ez duela gizarte-bereizketako faktore bat izan behar, baina helburu bikoitz hori uztartzeko gai den mekanismorik edo neuririk zehaztu gabe. Beraz, dena airean eta irekita geratzen da, eta horrek asko pobretzen du akordioaren aplikagarritasuna egungo egoerari irtenbidea bilatzeko.

## Ikas-postuen eskaintza

*Hezkuntza Sailak aldian-aldian zehaztuko du eskola-plazen eskaintza, ikastetxe guztien eskaintza eta aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta.*

### **Balorazioa**

**Ez dago egungo gaineskaintza zuzentzeko asmorik, ezta eskola-plaza publiko libreak dauden bitartean eskola-plaza pribatuak finantzatzeari uzteari ere.**

## Hezkuntzaren doakotasuna

*Herri mailako planifikazioa, eskolatzeko prozedura bateratuak eta finantzaketa publikoa duten titularitate ezberdinako ikastetxeetako ikasleen matrikulazioa eta eskolaratze-planifikazioa tresna egokiak izan daitezke helburuok lortzeko. Doakotasun erreala bermatuko du Eusko Jaurlaritzak, eskolatze-kuotak desagerraraziz.*

### **Balorazioa**

Proposatzen duen eskolaratze-eredua argi dago:

- Eskolaratzea ikastetxe publikoak eta pribatuak bateratuz egingo da.
- Berdin finantzatuko dira plaza publikoak eta pribatuak.

- Doakotasuna bermatuko da ikastetxe publiko eta pribatuetako ikasleentzat.

**Horrek jauzi kualitatiboa eta kuantitatiboa dakar pribatizazioaren eta pribatuaren finantzaketaren sustapenean.**

**Ikastetxea aukeratzeko eskubidea eta eskola-txekea dira sistema dual publiko-pribatua betiko legitimatuko duten eskolatze-mekanismoak.**

### **Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak**

Zerbitzu horiek irabazi-asmorik gabekoak izan ez daitezen arautzeaz hitz egiten da, eta mundu guztiak horiek eskuratzeko laguntzak (bekak) egongo direla adierazten da.

#### **Balorazioa**

Idazketak zalantza asko uzten ditu proposamenaren bideragarritasunari buruz. Gaur egun, jakina da enpresa pribatu batzuek batez ere zentro pribatuei eskaintzen dizkietela horrelako jarduerak, eta beren zerbitzuengatik uste dutena fakturatzeko eskubidea dutela. Eusko Jaurlaritzak ez du eskumenik kobrautu beharreko tarifak arautzeko, eta ezin du eragotzi zentro edo elkartea pribatu batek nahi dituen zerbitzuak kontratatzea. Bekak bakarrik eman ahal izango ditu. Beraz, zalantzazkoa da Eusko Jaurlaritzak eragotzi ahal izatea pribatuak horrelako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa pribatuek emandako eskolaz kanpoko jardueren aparteko zerbitzuengatik kuotak kobrautzea.

### **Lidergoa eta gobernantza ereduak**

*Elkarlana ahalbidetzea beharrezoa da sistema eta azpistema ezberdinak elkarrekin jarriz hezkuntza komunitateko benetako kide bilakatu daitezen herri, lurralte eta erkidegoa. Gobernantza berriaren erdigunean lidergoa dago, sistema osoaren eraginkortasuna eta ekitatea hobetzeko ezinbestekoa baita.*

*Eskola-antolamenduan, arrakasta-faktore erabakigarria da zuzendaritza-taldea, hezkuntza-komunitate osoaren lankidetzako praktikak sustatzeko. Horretarako, zuzendaritza-taldeak hautatu, prestatu eta aitortzeko prozedura berariazko bati ekingo zaio, proiektu kooperatiboak asmatzeko eta hainbat arlotan proposamenak egiteko topaguneak sortuz.*

#### **Balorazioa**

Gobernantza berriaz hitz egiten denean, ez da adierazten administrazioen arteko (zentrala, lurraldekoa eta tokikoa) hezkuntza-arloko eskumen-desentralizazioa; “lankidetza” baino ez da aipatzen.

Testua nahasia da hezkuntza-komunitatea deskribatzen duenean, udalerriz, lurraldez eta komunitatez osatua. Horretarako, lankidetza antolatzeko sistemak eta azpisistemak aipatzen ditu, baina zertan dautzan zehaztu gabe. Beraz, **eredu nahasia da eta eskola publikoa ez da inon agertzen.**

Administrazioen arteko artikulazio-sistemaren eszenatoki ezinezkotik irteteko, lidergoaren kontzeptua erabiltzen du ihesbide posible gisa, eraginkortasunera eta ekitatera eramango gaituen hitz magikoa. Eta ondoren, azkenean, beldur ginen bezala,

gobernantza berri gisa ulertzen denaren esanahia adierazten da: **arrakasta zuzendaritza-taldeen lidergoaren araberakoa izango da**, eta, horrela, erantzukizun guztsia haien bizkar utziko da, triada klasikoaren truke: «Hautaketa, prestakuntza eta aintzatespna», ezer berrik ez.

Gainera, lidergoa proiektu kooperatiboen garapenarekin lotzen da, nola eta noren artean zehaztu gabe.

**Gobernantza horrek antz gutxi du eskola publikoak proposatzen duen ereduarekin. Gobernantza-eredu berri honetan, familiak ez gara sartuta sentitzen: zein da familientzat planteatzen den eginkizuna? Non dago familien baterako gobernantza?**

### **Ikastetxeko plan estrategikoa**

Legeak aurreikusten duen lankidetza-gobernantzak eskola-komunitate osoa ordezkatuko duen organoa eskatzen du, plan estrategikoari eta urteko planari buruz erabakiko duena, kudeaketa eta emaitzak ebaluatuko dituena eta erantzukizuna, inplikazioa, berrikuntza, gardentasuna eta kontuak ematea erabiliko dituena.

Ebaluazioa sistematizatu beharra dago, hobetzeko tresna gisa onartuz eta elkarri kritika konstruktiboak egiten ikasiz, irakasleak erdigunean dituzten ikasleen gaitasun eta zaitasunak zehaztu, lehenengoak potentziatzeko eta bigarrenetan laguntzeko.

### **Balorazioa**

Lehenengo paragrafoak galdera berriak sortzen ditu. Zergatik ez zaio deitzen eskola-kontseilu organo horri?

Ikastetxeak Urteko Planaz gain Plan Estrategiko bat izan beharko duela adierazten da. Plan estrategikoa eta ikastetxearen hezkuntza-proiektua desberdinak al dira? Desberdina al da zuzendaritza-proiektuarekin alderatuta?

**Kezka sortzen digu ikastetxe bakoitzaren eta administrazioaren artean negoziatuko den proiektu estrategiko hau sare publikoaren nortasun kolektiboa eta eskola publikoaren aliantza estrategikoa zaitzeko estrategia izatea, sistemaren ardatz nagusi bihurtzea. Sistema hori ezarriz gero, eskola publikoak elkarritzetarako eta negoziazio kolektiborako gaitasuna galduko du, eta ikastetxe bakoitza gainerako ikastetxeetatik deskonektatutako unitate bihurtuko du.**

**Gai hau oso arriskutsua da, Eskola Publiko osorako Plan Estrategikoaren helburua deuseztatzen baitu eta helburu komunik gabeko negoziazio partikular bihurtzen baitu. Zalantzarik gabe, asmoa argia da: Eskola Publikoaren proiektu kolektiboarekiko sensibilizazioarekin amaitzea eta eskola publikoan ikastetxe pribatuaren kontzertazio-eredua sartzea, ikastetxe bakoitzak bere baliabide partikularrak jasotzen baititu administrazioarengandik.**

Era berean, kudeaketa eta parte-hartze komunitarioaren ikuspegitik, ezin dugu ahaztu ikastetxeen kudeaketa artikulatu nahi denean, planak eta proiektuak areagotuz (plan estrategikoa, hezkuntza- eta curriculum-proiektua, zuzendaritza-proiektua, urteko plana, kudeaketa ekonomikoko proiektua, hizkuntza-proiektua, digitalizazio-proiektua, berrikuntza-proiektuak, etab.), arrisku larria dagoela kudeaketa burokratizatzeko, ikastetxeen arteko koherentzia zaitzeko, eta tresna horiek hezkuntza-komunitatearentzat ulertzekoak diren tresna zail bihurtzeko. Parafernalia dokumental horrek guztiak ematen dio zentzua zuzendaritza gerentzialaren ereduari.

Bestalde, "ebaluazia sistematizatzea" izena, irakasleak erdigunean jarriz, ez dakigu zertaz ari den; izan ere, jada erabiltzen ari den "etengabeko ebaluazia" eredua sistematizatuta dago, eta haren funtzioa testuak adierazten duena da.

### **Kontratu-programa**

*Ikastetxe bakoitzak Hezkuntza Sailarekin adostutako Plan Estrategikoaren jarraibideak burutzeko tresna juridikoa, ekonomikoa, finantzarioa eta plangintza estrategikoaren alorreko da programa-kontrata.*

**Adostutako aldirako** esleitutako aurrekontua zehaztuko du.

Programa-kontrata eratu daiteke ikastetxe multzo baterako.

### **Balarazia**

*Programa-kontrata ikastetxe bakoitzaren Plan Estrategikoan aurreikusitakoa gauzatzeko erabiltzen den tresna da.*

*Egia esan, ikastetxearen eta Administrazioaren artean, edo ikastetxe-talde baten eta administrazioaren artean, sinatzen den "kontratu" bat da.*

*Tresna/kontratu horrek, dokumentuak planteatzen duen zuzendaritza-eredu gerentzialarekin batera, **eskola-administrazio harreman-eredu bertikala eratzen du, sare publikoaren kasuan ikastetxe bakoitzean erantzukizuna eskuordetzean oinarrituta.***

**Zalantzarik gabe, eredu neoliberal bat da, zentzua ematen diona hezkuntza-sistema bati, non helburu nagusia emaitzak diren, eta ez hezkuntza mota.**  
Hezkuntza-ekintza ikastetxera mugatzen du, eta interes ekonomikoei erantzuten dien adierazle-sistema balioesten du.

Programa-kontratuaren eredu hori, zalantzarik gabe, ez dator bat hezkuntza-proiektu komunitario formal eta ez-formalaren ereduarekin; izan ere, hezkuntza-komunitateak eta haren ingurune sozialak gizartea eraldatzeko hezkuntza-proiektuak diseinatu eta garatzen dituzte, tokiko eragileen eta administrazioen parte-hartzearekin.

## Administrazioen arteko hezkuntza-kogobernantza

*Hezkuntza komunitateak ikas/irakas prozesuetan esku hartzen duten erakundeen inplikazioa eta elkarlana bultzatuko ditu.*

*Udalek rol garrantzitsua izan dezakete arlo hauetan:*

- ✓ Matrikulazio-prozesua.
- ✓ Onarpen protokoloak familiengana hurbiltzeko
- ✓ Azpiegiturak indartzeko.
- ✓ Elkarbizitza sustatzeko.
- ✓ Kohesio-sareak sortu edota elikatzeko.
- ✓ Euskararen erabilera sustatzeko.

*Azken batean, eskola komunitatea indartzeko.*

*Legeak aurreikusiko du ikastetxeek gizarte- eta hezkuntza-arloko eta aisialdiko planak eta programen sustapena, tokiko baliabideen kudeaketan modu positiboan eragiteko, bizikidetza hobetzeko eta ikasle guztien inklusioa eta arrakasta hobetzeko. Jaurlaritzari dagokio, bere eskumenen esparruan, akordio horiek udalekin eta foru-aldundiekin arautu eta formalizatuko dituen esparrua ezartzea.*

## Balorazioa

Berriz ere, hezkuntza-komunitatearen gain erortzen da erakundeek hezkuntzan parte hartzeko erantzukizunaren zama. Ildo horretan, ikastetxeen erantzukizuna eskatzen da gizarte- eta hezkuntza-programak eta aisialdiko programak sustatzeko.

Eredu hori arriskuz beteta dago, zentro-tokiko administrazioaren arteko lankidetza-dinamika bat ezartzeko aukera hainbat aldagairen mende baitago:

- Toki-administrazio bakoitzaren eskumenak, baliabideak eta sentsibilitatea.
- Hezkuntza-komunitate bakoitzaren barne-funtzionamenduaren dinamika.
- Hezkuntza-komunitateko ordezkarien aldi baterako prestasuna, batez ere zuzendaritza-taldeen dedikazio-orduena.
- Eta abar.

Inon ez da adierazi udalak direnik gizarte- eta hezkuntza-proiektuen, ikaskuntza-zerbitzuaren proiektuen edo hiri hezitzaleen buru, eta ikastetxe guztien parte-hartzea sentsibilizatzen eta bermatzen dutenak. Lidergo hori gabe, kaltetuenak izango dira oraindik ere ikasle kalteberen ehuneko handiena duten ikastetxeak, lana eta familia uztartzeak eragindako zaitasunengatik eta ikastetxe horietan parte-hartze kultura eskasa izateagatik.

Era berean, ez da aipatzen familiek eskolako ibilbide eta espazio seguruak, hezitzaleak eta hezkidetzaileak bermatzeko egiten duten eskaria.

## Kontseiluak: tokikoak, Euskadiko Eskola kontseilua, Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua

### Tokiko kontseiluak (munizipalak?)

Helburuak:

- ✓ *Baliabide komunitario batzuk artikulatzea ikasleen ongizatearen eta heziketaren mesedetan.*
- ✓ *Hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartza bilatzea.*
- ✓ *Hezkuntza formal eta ez-formalaren arteko lotura sustatzea.*

Kontseilu honetan konsultatuko diren gaiak:

- ✓ *Hezkuntza-premiak identifikatzea, eskaintza banatzea eta ikasleak eskolatzeko irizpideak zehaztea, hiri-plangintzatik eratorritakoak barne.*
- ✓ *Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleen eskolatzegokia eta orekatua bermatzen laguntzeko jarduerak eta behar diren neurriak hartza, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo beste izaera bategatik bereiztea saihesteko*
- ✓ *Ikastetxeen funtzionamenduari eragiten dioten udal-jarduerak.*
- ✓ *Udalerrria eremu duten patronatuak, partzuergoak eta hezkuntza-erakundeak eratzea.*

### **Balarazoa**

Ados gaude parte hartzeko kontseilu horiek egotearekin, hezkuntzako konpetentzien eredu desentralizatuan. Ez du zentzurik komunitatearen partaidetza bere eskumenak mugatuta dituen administrazio batek sostengatzeak. Tokiko erantzukizun horretatik soilik bermatuko da udal guztiak kontseilu horien funtzionamendua aktibatzea eta egungo egoera gainditzea.

Ezin dugu geure burua engainatu, eskumenak eskuordetzearen gai hau konplexua baita, baina bermerik gabe kontseiluek ez dute funtzionatuko.

### Euskadiko Eskola Kontseilua

*Kontsulta- eta aholkularitza-organotzat du Eusko Jaurlaritzak hezkuntzaren arloan proposatu edo emandako arau-dokumentuekiko.*

Euskadiko Eskola Kontseilua eraberritu egingo da eta ikastetxeek zein tokiko hezkuntza kontseiluek eta gizarte eragileek ordezkaritza izango dute.

Bere funtzioen artean, hauexek dira nobedade bakarrak:

- (i) *Udal zein ikastetxeetako kontseiluekin sinergiak sustatzea.*
- (ii) *Ikasleek ikastetxeen parte har dezaten erraztea, garapen pertsonala eta soziala eta kidetasun-sentimendua sustatuz.*

### **Balarazoa**

Tokiko kontseiluekin sinergiak ezartzeko funtzioak, proposamenaren bideragarritasuna eta funtzionaltasuna nola eta zertarako den zehaztu gabe, zalantzan jatzen du proposamenaren funtzionaltasuna.

Ikasleek ikastetxean parte hartzeari dagokion funtzioa ikastetxeko eskola-kontseiluei dagokie gehiago, eta ez EEEri. Ez da justifikatzen zergatik sartu den proposamen hau.

Hala ere, eskola publikoarentzat garrantzitsuena da berriro ere azpimarratzea erakunde horrek bi urtean behin egin dituen Euskadiko Hezkuntzari buruzko Txostenek ez dutela eragin garrantzitsurik izan gure hezkuntza-sistemak dituen egiturazko arazoak konpontzeko. **Organo aholku-emailea eta parte-hartzailea izatea, hezkuntzako sektore guztiak ordezkatzen dituena, eta oso txosten interesarriak egiten jarraitzea, alferrikako ahalegina da, txosten horietan aipatzen diren esku-hartzeak, ondorioak eta esku hartzeko proposamenak bideratzeko konpromiso politikoarekin batera ez badator.**

Bestalde, ez da berariaz aipatzen hezkuntza hobetzeko ezinbestekoa den beste gai bat: EEKk unibertsitatearekin eta ikerkuntzarekin duen lotura eta lankidetza indartzea.

## Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua

*Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua partaidetzarako erakunde gisa eratuko da. Gaitasun eta autonomia nahikoa izango du hauetarako:*

- ✓ *Bere beharrak eta interesak identifikatu eta defendatzeko.*
- ✓ *Ikastetxe publikoentzako lanaren eta hezkuntza-lorpenen ikusarazteko.*
- ✓ *Ingurunean integratzea eta ikastetxeen arteko lankidetza-lana bultzatzea.*
- ✓ *Bere nortasunaz jabetzeko*
- ✓ *kalitate eta ezagutzaren aldetik lehiakorra izango den Euskal Eskola Publikoa bultzatzeko.*

*Euskal Eskola Publikoaren Kontseiluak urte anitzeko plan estrategikoen bidez, ikastetxe publikoentzako elkarlana sustatuko du, eta jardunbide egokiak transmititzeko sareak sortuko ditu.*

## **Balarazioa**

Kontseiluaren ezaugarrien deskribapenean ez da zehazten nortzuk osatuko luketen, ezta zein baliabide izango lituzkeen ere: egoitza, baliabideak, aurrekontua, ordezkarritasuna, etabar.

Bere funtzioen artean ez dira jasotzen hauek ere:

- ✓ *Eskola Publikoaren antolaketa eta eskaintza hobetzeko proposamenak egitea.*
- ✓ *Sare publikoa osatzen duten ikastetxeen beharrak identifikatzea gai nuklearretan: curriculuma, azpiegiturak eta espazioak, irakaslegoa, berrikuntza, etabar.*

Era berean, ez da argitu kontseilu horrek EHIGE bezalako elkartea egiten ari diren elkarritzeta eta ordezkaritza lana ordezkatuko duen ala ez.

Alderdi horiek argitzen ez diren bitartean, kontseiluaren interesa oso murritzta geratzen da, eta testimoniala izango da.

### Euskara, eleaniztasuna

Dokumentuak elebitasunaren helburua argitzen/bermatzen ez duen terminologia erabiltzen du, eta lehendik zeuden helburuak planteatzen ditu.

*Helburua argia da, ikasle guztiak gaitasun komunikatiboa izatea ofizialak diren bi hizkuntzetan, egoera errealera egokituta, ...belaunaldi berriek gaitasun egokia lortzea.*

*Euskararen erabilera errazten duten neurriak kontutan hartuko dira ...*

*Norberaren zein kanpoko ebaluazioen emaitzek eta gizarte-aldaketek hizkuntzen irakaskuntzan beharrezko egiten duten aldaketa metodologikoei ekingo zaio ikasleen hizkuntza-gaitasunak hobetzeko.*

*Euskara erreferentzia-hizkuntza gisa indartzea...*

*Euskal Hezkuntza Sistemaren baitan euskara lehenetsiko da jarduera-harremanetan zein profesionaletan baita ikasleen eta irakasleen arteko harremanetan...*

*Ikasle guztiak, familiaren jatorria gorabehera, ikasketak amaitzean bi hizkuntza ofizialak maila berean ezagutzea (soilik ezagutzea?) eta gutxienez atzerriko hizkuntza baten ezagutza izatea ahalbidetzearen alde egingo du legeak.*

*Urteetako esperientziak erakusten dituen indargune eta ahulezietan arreta osoa jarri behar du, ebaluazioen emaitzak faktore anitzekoak izanik, interpretazio sinplistetan erori barik.*

### Balarazioa

Ez gaude ados euskara soilik harremanetarako lehentasunezko hizkuntza gisa tratatzearekin, ezta erlazioetan lehentasuna ematearekin ezta ikasleek euskara ezagutzea erraztuko duten neurrikin ere. **Euskararen ezagutza eta erabilera bermatu behar dira, bai ikasketak egiteko, bai eskubide osoko herritarra izateko.** Euskara komunikazio-hizkuntza gisa tratatzea ezinbestekoa izan da elebitasuna lortzeko.

Euskara ardatz duen eredu eleaniztun bat ezartzearekin ere ez gaude ados, horrek zer dakarren zehaztu gabe. Defendatzen dugun alternatiba **ikasle guztiei euskararen gaitasun egokia bermatuko dien eredu bakar batera pasatzea** da. Euskaraz ikasteko eskubidea funsezko da hizkuntza-helburua eta aukera-berdintasuna lortzeko. EHIGEk uste du Euskal Eskola Publikoaren eredu berriak **murgiltze eredua** izan behar duela, horrek bermatzen baitu ondoen ikasle guztiak euskaraz eta beste hizkuntzetan gaitasuna izatea. Urte askotan praktikan jarritako eredu hori bateragarria

izan da hizkuntza-anitzasunarekin eta oso esparru egokia ikasleen hizkuntza guztierekiko errespetua irakasteko, eta aukera eman du beste hizkuntza eta kultura batzuk ezagutzeko eta ama-hizkuntza tratatzeko.

**Ebaluazioen emaitzek argi eta garbi erakusten dute euskarazko hizkuntza-gaitasuna ez dela eskuratzen.** Dagoen eredu sistema da faktore garrantzitsuenetako bat, eta, gainera, segregazioan sakondu du.

Bestalde, curriculumak ez du oinarri horietan dagokion lekua, eta, beraz, ez dugu benetako borondaterik ikusten gure txostenean planteatzen ditugun Euskal Herriko gizarte- eta kultura-ezaugarriak ezagutzeko eta babesteko helburua garatzeko.

Azkenik, Euskararen Ikaskuntzarako Institutua sortzea planteatzen da, zehaztasun-maila baxuarekin. Orain arte hartutako neurriek, Euskararen Aholku Batzordeak, IRALEk, programa espezifikoek eta abarrek zer ekarri duten aztertzea gustatuko litzaiguke.

### **Ikasteko eta etengabe hobetzeko palankak**

#### **Hezkuntzaren eraldaketa eta hobekuntza bi ardatzetan: ekitatea eta bikaintasuna**

Dokumentuak aukera gisa ekitatea eta hezkuntza-bikaintasuna onartzea planteatzen du.

Era berean, proposatzen du gizarte-kohesioa aukera bat dela, lege honek euskal eskola inklusibo baten alde egingo duen apustu irmoa bezalaxe, honako arlo hauetan planak, programak eta protokoloak garatuz:

- ✓ *Ikasle etorkinei hezkuntza-arreta.*
- ✓ *Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzia.*
- ✓ *Ikasle ijitoak eskolaratzea.*
- ✓ *Adimen-gaitasun handiko ikasleentzako jarduna.*
- ✓ *Ikasleen eskubideak eta betebeharrok zaintza.*
- ✓ *Eskola-jazarpen eta ziberbullying-aren aurrean jardutea.*
- ✓ *Genero-jokabide ez arautua duten ikaslei laguntza.*

Adierazten da ere “bikaintasunak izan behar duela izan Euskal Hezkuntzaren ikur nagusietariko bat”.

*Etengabeko hobekuntza eta aukerak optimizatzea sustatzen dituzten formulak egiten siatzea. Ahaldundutako ikastetxek proiektu partekatuak eraikiko dituzte eta adimen kolektiboko espazioak antolatzea bultzatuko, bikaintasun-eremuak bilatzeko helburuz.*

### **Balarazia**

Gizarte-kohesioa aukera bat dela adieraztea, eta ez euskal hezkuntzaren helburuak gidatu behar dituzten printzipioetik sortzen den eskubidea, **ekitatea lortzea helburu desiragarrien edo interesgarrien kategorian kokatzen du, baina ez ikasle guztiei**

## **bermatu behar zaien eta ikastetxe guztiei eskatu behar zaien lehentasuneko helburua.**

Bikaintasuna sistemaren bereizgarrietako bat dela aipatzea, lehentasuneko helburuen mailan kokatzea da, sistema erreferentzia bihur dadin dimensio horretan, orain gertatzen ez den bezala. **Badirudi zentroak ahalduntzeko beharra bikaintasunaren helburuari soilik lotuta egongo litzatekeela, eta ez ekitatearen helburuari.** Idazketa anbiguo samarra bada ere, uler daiteke bikaintasuna lortzeko gomendioa hautatutako ikastetxeen talde bati dagokiola, proiektuak partekatu eta adimen kolektiboko (¿) espazioak diseinatuko dituztenei.

Ondorio gisa, interpreta daiteke Euskal Hezkuntza Zerbitzua hainbat titulartasun, tipologia eta profiletako ikastetxeek osatuko dutela, eta ekitate- eta bikaintasun-helburuei ekingo diela, zentro batzuk espezializatuko dituela ekitatean hobeak izatea helburu duten proiektu estrategikoak diseina ditzaten, eta beste ikastetxe batzuk espezializatuko dituela bikaintasuna lortzeko. Formula hau helburu bikoitza (Eq-Ex) betetzen duen sistema dual bat baliozkotzeko da, eta orain arte garatu diren politikek jada horrela planifikatuta zuten. Beraz, badirudi helburu estrategiko sistemikoak ez direla aldatuko, nahiz eta ekitatea eta bikaintasuna lortzeko neurrien eraginkortasuna handitzen saiatuko den.

Nolanahi ere, eskola publikoa oso adi egongo da Eq-Ex helburu bikoitzerako ezarri beharreko estrategiak planteatzerakoan Hezkuntzaren Legeak erabiliko duen formula behin betiko zein izango den jakiteko. **EHIGEren ustez, bikaintasunak ekitatearekin lotuta egon behar du beti.**

### **Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa**

*Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa bultzatuko da hezkuntza arloan prestakuntza, aholkularitza, ikerketa eta berrikuntzaz arduratuko den organo gisa.*

*Hauek izango dira zentro honen ardurak:*

- ✓ kudeaketa, antolakuntza, metodologiak eta tresnak garatzeko eredu aurreratuen ezagutza transferitzeaz arduratuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztien premia eta errealitateetara egokituta.

*Funtzioak:*

- ✓ unibertsitatez kanpoko mailetako hezkuntza-berrikuntzaren arloan ikertzea.
- ✓ ikaskuntza-prozesuak hobetuko dituzten ingurune presentzial eta digital berriean etengabeko hobekuntza garatzen laguntzea.
- ✓ irakasleen komunikazio-gaitasun integrala sustatzea testuinguru eleaniztunean; ikastetxeen antolaketarako modu berriak eta kudeaketaren eraginkortasuna sustatzea.
- ✓ ikastetxeen antolaketarako modu berriak eta kudeaketaren eraginkortasuna sustatzea
- ✓ eskola inklusiboaren garapena eragitea, ikasle guztiak parte hartuz eta ikasteko prozesuetan hobekuntzak eraginez.

### **Balorazioa**

